



2010eko ekainaren 3a

HERRIKO KONTSEILUko  
kide zareten jaun-andereak

Erref. : JMB/MHM – 715/2010

**HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA**  
**2010eko EKAINAREN 2an, ASTEAZKENA, 18 :00etan**  
**HERRIKO ETXEAN IRAGAN BILKURA**

**BERTARATUAK**: Guy POULOU Auzapez jauna, LOLOM jauna, BERLAN jauna, DOSPITAL-GHOSSOUB anderea, LALANNE jauna, WATIER DE CAUPENNE anderea, MINTEGUI anderea, HIRIART jauna, IDIARTEGARAY-PUYOU anderea, ANCIZAR anderea, IBARLOZA jauna, CAPDEVILLE anderea, ANIDO jauna, HARDOY anderea, GLOAGUEN anderea, ORIVE anderea, GOURAUD jauna, MINTEGUI jauna, DUGUET anderea, TAPIA anderea.

**AHALORDEAK** : DUBARBIER andereak LOLOM jaunari eman dio ; COSTE jaunak DOSPITAL-GHOSSOUB andereari ; GOUAILLARDET jaunak BERLAN jaunari ; UGARTEMENDIA andereak HARDOY andereari ; BAZERQUE andereak DUGUET andereari.

**BARKATUAK** : MACHENAUD jauna, URBISTONDOY jauna, ERRANDONEA jauna, MADRID jauna.

**BERTAN ZIRENAK** : BORDENAVE jauna, Zerbitzuetako Zuzendari Nagusia.

2010eko maiatzaren 25eko deialdia.

Guy POULOU Auzapez jaunaren lehendakaritzapean.

**GAI ZERRENDA:**

**I/ Gai orokorrak**

- 1 / 2010eko apirilaren 14ko Herriko Kontseiluaren bildumaren onspena
- 2 / Herriko Kontseiluak Auzapezari eman ordezkariak
- 3 / Etxebizitzako 64 Bulegoarekiko salmenta akordioa
- 4 / Seixo Promotion sozietatearekiko salmenta akordioa

**II/ Finantza gaiak**

- 1/ Goi mailako irakaskuntzako beka
- 2/ Goi mailako irakaskuntzako beka (ERASMUS programa)
- 3/ Elkartei eman 2010eko diru-laguntzak
- 4/ Altxortegi lerroa

### **III/ Herriko langilegoari dagozkion gaiak**

- 1/ Herriko langileak Ziburu eta Urruñako Ama Eskola eta Lehen Mailako Eskolen Herriarteko Sindikatuaren esku jartzeko hitzarmena
- 2/ Ziburuko eta Urruñako herrizaingoen koordinaketa eta partekatze hitzarmenak

### **IV / Zerbitzu Teknikoak**

- 1/ Zokoako itsas labarrak : Zokoako itsas labarraren sendotze eta segurtatze obrak.

Pierre BERLAN jauna bilkura idazkari gisa izendatu da.

### **I/ Gai orokorrak**

#### **1) 2010eko apirilaren 14ko Herriko Kontseiluaren bildumaren onspena**

Herriko Kontseiluak 2010eko apirilaren 14ko Herriko Kontseiluaren bilduma aho batez onetsi du.

MINTEGUI jauna euskarazko bilduma oraindik eskuratu ez izanaz damutu da.

#### **2) Herriko Kontseiluak Auzapezari eman ordezkaritza (Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L 2122-22 artikulua)**

Ordezkaritza horri esker, ondoko hitzarmenak izenpetu dira :

- Aldi baterako okupazio hitzarmena, kolokakoa eta ezeztagarria, 2010eko martxoaren 19an JMBT erantzukizun mugatuko sozietatearekin izenpetua.
- Okineta karrika itsuko eraikineko lokalak dohainik esku jartzeko hitzarmena, 2010eko apirilaren 21ean ILARGI elkartearekin izenpetua.
- « Bourousse karrika, 28 » helbidean kokatu lokal batentzako merkataritza alokamendua, 2010eko maiatzaren 14an De BAILLIENCOURT anderearekin (ARSENNE erantzukizun mugatuko sozietatearen izenean) izenpetua.

#### **3) Etxebizitzako 64 Bulegoarekiko salmenta akordioa**

##### **Txostengile : Auzapez jauna**

Auzapez jaunak irakurri die Herriko Kontseilarietara Etxebizitzako 64 Bulegoak helarazi dion salmenta akordioa, ondoko eragiketari buruzkoa : ASKENA deitu eraikinaren salmenta, ZIBURUko udalak eginga 10 alokairuzko etxebizitza sozial gauzatzeko.

Auzapez jaunak azpimarratu du adostasunean finkatua izan den salmenta prezioa 90 000 €-koa dela.

Azalpen horren jarraian eta Estatuaren Ondasunetako zerbitzuen irizpena hartu ondoren, Herriko Kontseiluak erabaki du :

- Salmenta akordioa **ONESTE**A,
- Auzapez jauna **AHALDUNTZEA** akordio horren izenpetzeko.

Oharrak :

DUGUET andreak azpimarratu du aparkatzeko lekuak faltako direla.

Auzapez jaunak honako hau erantzun dio : egia da lekuak faltako direla (10 etxebizitza eraikiak 5 aparkalekurako + leku bat Mugikortasun Murriztuko Pertsonentzat), baina errealitatean, halako programa baten onuradunak biztanle gazteak izanen dira eta ez da errana haietarik bakoitza auto edo ibilgailu baten jabe izanen denik.

Auzapez jaunak gaineratu du karrika itsuko aparkatze guzia berrantolatuko dela, eremu publikoaren erabileraren kudeaketa hobetuz.

### **AHO BATEZ ONETSIA**

#### **4) Seixo Promotion sozietatearekiko akordio salmenta**

**Txostengile : Auzapez jauna**

Auzapez jaunak irakurri die Herriko Kontseilariari Marie-Claude BOUSQUET andreak helarazi dion salmenta akordio proiektua, ondoko eragiketari buruz : herriko lurzati baten salmenta, ZIBURUko udalak eginga. 16.000 eurotan saldu lurzatiak 104 m<sup>3</sup>-ko edukiera du eta kadastran honela agertzen da : AO atala 312 zk.

Azalpen horren jarraian eta Estatuaren Ondasunetako zerbitzuen irizpena hartu ondoren, Herriko Kontseiluak erabaki du :

- Salmenta akordioa **ONESTE**A,
- Auzapez jauna **AHALDUNTZEA** akordio horren izenpetzeko, Eraikitze Lizentzia Hirigintza Batzordearen aurrean aurkeztu eta gero.

Oharrak :

DUGUET andreak galdegin du gai hori atzeratua izan dadin, arrazoin hauengatik : salmenta hori hertsiki lotua zaio salgai dagoen herriko lurzatiaren ondo-ondoko higiezinaren proiektu berriari eta, Hirigintza Batzordeak ez du proiektu hori aztertu. Hain zuzen ere, DUGUET andrea zur eta lur gelditu da ikusiz proiektu hori SEIXO PROMOTION sozietateak bere webgunean jadanik aurkeztu duela.

Auzapez jaunak erantzun dio Hirigintza Batzordeak aldeko irizpena emana duela proiektu ohiari buruz.

MINTEGUI jaunaren iduriko, erabilera erabat desberdina dela.

Auzapez jaunak ez du ikusten zergatik Herriko Kontseiluak itxaron beharko lukeen proiektua Batzordearen aurrean aurkeztua izatea, salmenta akordioari buruzko erabakia hartu ahal izateko. Udalarentzat erabat erabilezina den lurzati horren eskuratzeak bizileku gehigarri bat eraikitzeke aukera emanen dio sozietateari. Oroitarazi du programa horrek 28 bizileku proposatzen dituela, horietarik % 40 etxebizitza sozialak baitira, TEPk eskatzen duen bezala.

Auzapez jaunak proposatu du akordioan ondoko klausula sartzea : akordioa izenpetuko da Eraikitze Lizentziaren proiektua Hirigintza Batzordearen aurrean aurkeztuz gero.

### **AHO BATEZ ONETSIA**

#### **III/ Finantza gaiak**

##### **1) Goi mailako irakaskuntzako beka**

**Txostengile : Claude LOLOM jauna**

2009/2010eko unibertsitate ikasturterako Auzapez jaunak honako hau proposatu du : Ziburuko ikasleei eman parte hartzea Kontseilu Orokorrak banatu goi mailako irakaskuntzako beken zenbatekoaren %10ekoa izatea, gutxieneko kopurua 65 €-tan finkatuz.

2010eko maiatzaren 11ko Finantza Batzordearen irizpenaren jarraian, Herriko Kontseiluak erabaki du :

- goi mailako irakaskuntzako beken zenbatekoaren %10eko parte hartze bat **EMATEA**, gain honetan zehaztu baldintzen arabera.

### **AHO BATEZ ONETSIA**

##### **2) Goi mailako irakaskuntzako beka (ERASMUS programa)**

**Txostengile : Claude LOLOM jauna**

Auzapez jaunak azaldu du ERASMUS programaren baitan (ikasle trukaketa Europa mailan), Eskualdeko Kontseiluek ERASMUS beka bat ematen dietela ikasle batzuei.

Auzapez jaunak proposatu du 2009/2010eko unibertsitate ikasturterako Eskualdeko Kontseiluek banatzen dituzten beken % 10eko parte hartze bat ematea ZIBURUko ikasleei..

2010eko maiatzaren 11ko Finantza Batzordearen irizpenaren jarraian, Herriko Kontseiluak erabaki du :

- % 10eko parte hartze bat **EMATEA** ERASMUS programaren esparruan, parte hartze hori Eskualdeko Kontseiluak banatzen dituen beken zenbatekoaren %10era mugatuz.

### **AHO BATEZ ONETSIA**

### 3) Elkarteei eman 2010eko diru-laguntzak

#### **Txostengile : Claude LOLOM jauna**

Auzapez jaunak azaldu die Herriko Kontseilariei 2010. urterako diru-laguntza eskaerak jaso dituela hainbat elkarterengandik.

Auzapez jaunak proposatu du ondoko diru-laguntzak ematea :

<b>Esleipena</b>	<b>Elkartearen izena</b>	<b>Eskaeraren gaia</b>	<b>Zenbatekoa</b>
6574/415	Ziburu/Senpereko Tenis Taldea	Tenisaren praktika	2 800 €
6574/415	Ziburu/Senpereko Tenis Taldea	Txapelketen antolaketa	1 500 €
6574/33	Donibaneko Ikasleak (AEK)	Euskararen irakaskuntza	2 700 €

Auzapez jaunak proposatu du Herriko Kontseiluak erabaki bat hartzea ondoko bi diru-laguntza gehiarri buruz :

6574/33	Musikari Donibane Lohizune (Tamborrada Marinelak)	Elgarretaratze baten antolaketa Tamborradaren 25. urtemugaren karietara	1 000 €
6574/33	Musikari Donibane Lohizune (Tamborrada Marinelak)	Tamborradaren praktika eta sustapena	500 €
6574/33	Itsas Begia	« Brokoa » txaluparen obrak	250 €

Aho batez Herriko Kontseiluak onartu du erabaki bat hartzea bi diru-laguntza horiei buruz.

Gain honetan agertzen diren diru-kopuruak ordaindu ahal izateko, komeni da Herriko Kontseiluak ondoko erabaki aldagarria onestea :

#### Funtzionamendu atala : (1. EA)

<i>Funtzionamendu atala : Gastuak</i>			
<i>Artikulua</i>	<i>Funtzioa</i>	<i>Izendapena</i>	<i>Zenbatekoa</i>
6574	415	D-Lag.Funtz.elkart.beste.erak.Zuzbide.prib.	4 300
6574	33	D-Lag.Funtz.elkart.beste.erak.Zuzbide.prib.	4 450
658	O1	Kudeaketa arrunteko bestelako kargak	-8 750

2010eko maiatzaren 10eko Finantza Batzordearen irizpenaren jarraian, Herriko Kontseiluak erabaki du :

- Diru-laguntzak gain honetan adierazi bezala **EMATEA**,
- Erabaki aldagarria gain honetan aurkeztu bezala **ONESTEA**.

#### Oharrak :

TAPIA andereak, bere taldearen izenean, eskerrak eman dizkio Auzapez jaunari erabakia aldatzeagatik eta AEK elkarteari diru-laguntza gehigarri bat ematea onartzeagatik.

### **AHO BATEZ ONETSIA**

#### 4) Altxortegi lerroa

**Txostengile : Claude LOLOM jauna**

Auzapez jaunak jakinarazi die Herriko Kontseilariari aurtengo inbertsio atalaren oreka immobilizazio lagapenek (810 000€), eskuratuko diren diru-laguntzek (528 000€) eta eginen den mailegu batek (504 000€) segurtatua dela.

Kontuan harturik salmentak urte amaieran eginen direla eta diru-laguntzak hein handi batean obrak bukatu eta gero eskuratuko direla, Auzapez jaunak proposatu du 1 100 000€-ko altxortegi lerro bat erabiltzea balizko altxortegi eskasak bete ahal izateko.

Auzapez jaunak gehitu du hainbat bankurekiko kontsulta bat egina izan dela eta baliteke « Crédit Agricole Mutuel Pyrénées Gascogne » bankuaren eskaintza atxikitzea.

Mailegu horren irekitzeko baldintza nagusiak honako hauek dira :

- Zenbatekoa : 1 100 000 €
- Txosten gastuak : 250€
- Interes tasa : Euribor 3 hilabete + % 0,70
- Erabilpen ezarako komisioa : deusik ez

Azalpen horren jarraian eta 2010eko maiatzaren 11ko Finantza Batzordearen irizpena hartu ondoren, Herriko Kontseiluak erabaki du :

- Mailegu irekitzerako proposamena gain honetan adierazi bezala **ONESTEA**,
- Auzapez jauna **AHALDUNTZEA** proposamen horri dagozkion dokumentu oro izenpetzeko.

DUGUET anderea, BAZERQUE anderea, TAPIA anderea, GOURAUD jauna eta MINTEGUI jauna abstenitu dira.

### ONETSIA

#### IV/ Herriko langilegoa

##### 1) Herriko langileak Ziburuko eta Urruñako Ama Eskola eta Lehen Mailako Eskolen Herriarteko Sindikatuaren esku jartzeko hitzarmena

**Txostengile : Claude LOLOM jauna**

Auzapez jaunak jakinarazi die Herriko Kontseilariari komeni dela herriko langileak Ziburu eta Urruñako Ama Eskola eta Lehen Mailako Eskolen Herriarteko Sindikatuaren esku jartzeko hitzarmena berritzea.

Esku jartze berri hori 2009ko urtarrilaren 1ean sar liteke indarrean, 2011ko abenduaren 31an amaitzeko.

Azalpen horren jarraian, Herriko Kontseiluak erabaki du :

- Aipatu hitzarmena **ONESTEA**,
- Auzapez jauna **AHALDUNTZEA** hitzarmena izenpetzeko.

Oharrak :

TAPIA andereak galdegin du esku jartze horiek izendunak ala orokorrak diren.

Auzapez jaunak erantzun du esku jartze horiek izendunak direla eta erabakia hartzen dela hunkituak diren langileak ados izanez gero.

### **AHO BATEZ ONETSIA**

#### **2) Ziburuko eta Urruñako herrizaingoen koordinaketa eta partekatze hitzarmenak**

**Txostengile : Pierre BERLAN jauna**

Auzapez jaunak aurkeztu die Herriko Kontseilariari Ziburuko eta Urruñako udalen arteko hitzarmen proiektu bat, honen helburua udalzainen eta hauen ekipamenduen partekatzea baita.

Hitzarmena urte baterako sina liteke, 2010eko uztailaren 1etik goiti. Udarako, hau da, uztailaren 1etik agorrrilaren 31 arte, talde misto batek esku hartzeak eta zaintza segurta litzake bi herrietan, 8 :00etatik 12 :00etara eta 13 :30etik 19 :30era, egun guziz.

Auzapez jaunak Polizia Nazionalaren eta Ziburuko zein Urruñako herrizaingoen arteko koordinaketa hitzarmen proiektua ere aurkeztu du. Hitzarmena urte baterako sina liteke, 2010eko uztailaren 1etik 2011ko ekainaren 30era, aurreko hitzarmenaren iraupena kontuan hartzeko gisan.

Azalpen horren jarraian eta 2010eko maiatzaren 18ko Batzorde Administratibo Parekidearen irizpena hartu ondoren, Herriko Kontseiluak erabaki du :

- Aipatu hitzarmenak **ONESTEA**,
- Auzapez jauna **AHALDUNTZEA** hitzarmenak izenpetzeko.

Oharrak :

BERLAN jaunak argibideak eman ditu Udalzaingoko zerbitzu horren geroko antolaketari buruz : xede berriak eta kanpoan iragan denboraren ordu-anplitude berria. Gaineratu du udan Ziburuko eta Urruñako udalzainak egun guziz ariko direla lanean.

MINTEGUI jaunaren galdera bati erantzun nahian, BERLAN jaunak azaldu du antolaketa berriari esker ahalbide administratibo zein teknikoak partekatzen ahalko direla, bi herriei

gastuak murrizteko aukera emanaz. Ber denboran, esku hartuko duten udalzainen segurtasuna hobetzen ahalko da.

## **AHO BATEZ ONETSIA**

### **IV / Zerbitzu teknikoak**

#### **1/ Zokoako itsaslabarrak : Zokoako itsaslabarraren sendotze eta segurtatze obrak**

**Txostengile : Guy LALANNE jauna**

Auzapez jaunak oroitarazi die Herriko Kontseilariari ZIBURUko udalak bi azterketa abiatu dituela Zokoako itsaslabarren sendotzeari buruz, Zokoako Gotorlekuaren hego-mendebaldean gertatu diren higadura fenomenoaren jarraian.

2005ean eta 2008. urtearen hasieran egin bi azterketa horien artean, konturatu gara itsasbazterreko lerroa era adierazgarrian atzeratu dela, itsaslabarren gailurrean zegoen Mugazainen Bidearen desagertzea ere eraginez.

2008ko irailean, ANTEA kabineteak Zokoako itsaslabarra sendotzeko proposamenak aurkeztu zituenean, zazpi sektore ezegonkor agerian utzi zituen. Lanjerren definizioa eta arrisku maila (3 mailatan sailkatua) kontuan hartuz, A sektorea (Ezproia iparraldeko isurialdea) eta B sektorea (badia txikia) larritasun handiko sektoretzat atxikiak izan dira, haien egoera geografikoarengatik.

Alabainan, bi sektore horiek Zokoako Gotorlekurako sarbide bakarraren, hau da, Passicot Komandantea etorbidearen ondo-ondoan daude.

Larritasun handiko obra horien zenbatekoa 965 000 €koa da (BEZik gabe).

2008ko irailaren 12an, ZIBURUko Herriko Etxean iragan zen bilkura hartan parte hartu zutenek (Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoak, Pirinio Atlantikoetako Departamenduak, Akitania Eskualdeko Kontseiluak, Hautetsien Kontseiluak eta Estatuaren ordezkariak) neurtu ahal izan dute, ANTEA azterketa bulegoaren txostenaren arabera, Zokoako Gotorlekurako sarbide bakarraren mozteko arriskua, badia txikiaren eremuan higadura fenomeno berri bat gertatuz gero.

Eremu hori azken babesgune gisa hartu behar da. Horren haustea maila desberdineko eraginak izan litzake pertsonen eta ondasunen segurtasunaren gainean, bai eta animalien, landareen eta tokiko ekonomiaren gainean ere. Parte bat erori zen 2008ko abenduaren 6an, lekuen segurtasunarentzako balizko arriskua baieztatuz, ondoko ondorioekin :

1. Zokoako Gotorlekuko dikearen segurtatze jarduera mantentzeko ezintasuna,
2. Gotorlekurako sarbidearekiko lehorreko loturaren moztea,
3. Elektrizitate, ur eta saneamenduko hornikuntza sareen moztea,
4. Bide publikoaren suntsipena,
5. Portuko korronteen aldaketa,
6. Zokoako merkataritza jardueren isolamendua, bereziki hondartzari lotuak zirenean (urpekaritza taldea, arrantzale amaturrak...).



Kontuan harturik egoeraren urgentzia eta higadura fenomeno berri baten hipotesian gerta litezkeen arriskuak,

Kontuan harturik zuzenki mehatxuak diren departamenduko bideak, Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoaren ur eta saneamendu sareak, Donibane Lohizune-Ziburuko badia eta Estatuaren ondare historikoa baitezpada babestu behar direla,

Kontuan harturik premiazkoak diren sendotze obren kostuak Ziburuko udalaren diru gaitasunak gainditzen dituela,

2008ko abenduaren 22ko delibero baten bidez, Udalak baimena eman dio Auzapez jaunari :

- gunearen segurtatze prozedura oro abian jartzeko,
- hunkituak diren eragileei (Estatu, Eskualde eta Departamenduari), bai eta Barneko Ministerioari ere - « 122 programa 01 ekintza »-ren izenean - diru-laguntzak eskatzeko, 200 000 €-ko zenbateko baterako,
- FEDER fondoari diru-laguntzak eskatzeko.

Ziburuko udalak aurkeztu duen txostena aztertu ondoren, « LITTORAL AQUITAIN » Interes Publikoko Taldeak, 2009ko uztailaren 15eko biltzar nagusiaren delibero baten bidez, « Akitaniako itsasbazterreko lerroa kudeatzeko estrategiaren » azterketa SOGREAH azterketa bulegoaren esku utzi du.

Azterketa horrek metodo amankomunak eman behar dizkie itsasbazterreko elkargoei eta ondoko erabakiak hartzen lagundu behar ditu :

- Gaurko eta geroko higadurak hunkitu perimetroan dauden desafioak zehaztu eta neurtzeko,
- Itsasbazterreko lerroaren kudeaketa ahalbidetzen duten gidoiak lantzeko,
- Gidoi horiek ebaluatu eta konparatzeko (kostua / abantailak).

Merkatu hori Akitaniako itsasbazterren aldeko kontratuko politiken esparruan sartzen da, politika horiek « PO FEDER » proiektuaren kontratuan (Programa Operatiboa 4. Ardatza Europa - Itsasbazterren aldeko Politika) (Europaren finantzaketa) hizpatuak direlarik.

Proiektu horren esparruan, Ziburuko itsaslabarraren gunea pilotu probagune gisa atxikia izan da Akitaniako itsasbazterreko beste bi gune hauekin batera : Contis (Landetan) eta Lacanau (Girondan).

Azterketa horren emaitzek ikuspegi metodologikoa – itsasbazterreko higaduraren arriskuaren zehazpenarekin 2020-2040 epeari begira - eta itsasbazter osoko desafioen identifikazioa uztartuko dituzte. Azken finean, arriskua eta desafioak gurutzatuko dituzte eskualdearen higadurarekiko sentiberatasunaren kartografia egiteko eta lehentasunezko obra edo eragiketak finkatzeko.

Pilotu gune gisa atxikia izan den Ziburuko txostenaren kokaerak « PO FEDER » europar fondo goititurako hautagai izateko aukera ematen dio. Hala, finantzaketa plan berri bat lantzen ahal du, behe honetan adierazi bezala :

**Eragiketaren zenbatekoa : 965 000 € BEZik gabe**

**Diru parte hartzeak :**

- |                                                    |           |           |
|----------------------------------------------------|-----------|-----------|
| • Europa FEDER                                     | 193 000 € | (% 20)    |
| • Estatua (DDTM)                                   | 96 500 €  | (% 10)    |
| • Ministerioko fondo berezia                       | 75 000 €  | (% 7,77)  |
| • Eskualdeko kontseilua (Euskal Herriko Kontratua) | 213 000 € | (% 22,07) |
| • Kontseilu Orokorra (Euskal Herriko Kontratua)    | 193 000 € | (% 20)    |

- ZIBURUko udala 194 500 € (% 20,16)

Azalpen horren jarraian, Herriko Kontseiluak erabaki du :

- Eragiketa horren finantzaketa plan berria **ONESTEA**,
- **Auzapez jaunari BAIMENA EMATEA** hunkituak diren eragileei (Europa, Estatu, Eskualde eta Departamenduari) diru laguntzak eskatzeko, behe honetan aurreikusi bezala,
- Eragiketa horren obragintza **ONARTZEA**,
- Auzapez jaunari **BAIMENA EMATEA** aipatu obretarako prozedura administratibo eta teknikoak abian jartzeko.

Oharrak :

DUGUET andereak galdegin du G.I.P.rekiko azterketa abian jarria izan den ala ez.

Auzapez jaunak baiezko erantzuna eman dio.

DUGUET andereak eskuratu nahi ditu azterketa horren emaitzak.

Auzapez jaunak baiezko erantzuna eman dio eta DUGUET anderea gonbidatu du ekainaren 18an, 9 :30ean, Ziburuko Herriko Etxean iraganen den azterketaren aurkezpen bilkuran parte hartzera.

MINTEGUI jaunak galdegin du obra horien arrakastaz seguru ote garen.

Auzapez jaunak baiezko erantzuna eman dio.

### **AHO BATEZ ONETSIA**

Gai zerrenda agortu eta gero, bilkura 19 :30ean amaitu da.